

Lan istripuagatiko edo gaixotasun profesionalagatiko ezintasun iraunkorra (baliaezintasuna)

Nork du prestazio ekonomikoa jasotzeko eskubidea?

Kontingentzia profesionalen estaldura duten erregimen guztietako langileek, laneko istripuen edo gaixotasun profesionalen ondorioz beren lanerako gaitasuna murrizten dieten murrizketa anatomikoak edo funtzionalak badituzte.

Nork ordaintzen du prestazio ekonomikoa?

Ezintasunik gabeko lesio iraunkorren eta ezintasun iraunkor eta partzialaren kalte-ordainen kasuan, Mutualia da zuzenean prestazioa ordaintzen duena, Gizarte Segurantzaren Institutu Nazionalaren aitortpena jaso ondoren.

Ezintasun iraunkor eta erabatekoaren, ezintasun iraunkor eta absolutuaren edo ezintasun handiaren kasuan, zeinetan langileei bizi osorako sariak aitortzen zaizkien, mutualitatea bada ere ordainketaren arduraduna horiek Gizarte Segurantzaren Diruzaintza Orokorrean kapitalizatzearen bitartez, saria Gizarte Segurantzaren Institutu Nazionalak ordaintzen du hileroko, 12 ordainsariren bitartez.

Nola eska dezaket?

Mutualiak babestutako langileen kontingentzia profesionalen ondorioak ebaluatzeko prozedurari ekin behar dio, Gizarte Segurantzako Institutuak dagozkion ezintasunen edo baremoen prestazio ekonomikoa jasotzeko eskubidea onar dezan.

Gizarte Segurantzako Institutu Nazionalak, Laneko Ikuskaritzak eta Gizarte Segurantzak edo Osakidetzak, Euskal Autonomia Erkidegoan, ere jar dezakete abian prozedura hori, edo, bestela, langileek beraien eskatuta. Prestazioa izapidetzen hasi ahal izateko, ezinbestekoa da langileak bere onespena behar

bezala izenpetuta bidaltzea (inprimakiak atalean dagoen onespren-ereduarekin lotu behar da hemen), txostenari historial klinikoa erantsi ahal izateko, Gizarte Segurantzaren Institutu Nazionalak baloratu dezan, bai eta NANaren edo indarrean den agiri baliokideren baten kopia bat ere.

Kasu bereziak

Txostena langileak eskatuta jartzen bada abian, eskaera bat egin behar da idatziz, eta Ondorioak Hasi Eredua erabili behar da horretarako.

Lanpostuan denbora luzez zarata entzuten egon beharragatik sortzen diren gaixotasun profesionalen eraginez sortutako ondorioak izapidetu behar baditugu, ezinbestekoa da enpresak Zarataren Ziurtagiria Eredua erantsita betetzea.

Mutualiak Gizarte Segurantzaren Institutu Nazionalaren aurrean pentsio eskubidea duen ezintasun iraunkorreko txosten bat izapidetu behar badu, enpresak soldaten ziurtagiri bat bete beharko du.

-Txostena hasita dagoela jarraitu beharreko urratsak

Mutualiak gutun baten bitartez jakinaraziko dio langileari zer egunetan aurkeztu den Gizarte Segurantzako Institutu Nazionalaren aurrean ondorioak baloratzeko txostena.

Gizarte Segurantzako Institutu Nazionalak azterketa medikoa egiteko deitu ahal izango du langilea, telefonoz edo, horren orde, idatziz.

Gizarte Segurantzaren Institutu Nazionalak ebazpena emango du etengabeko ezintasunari edo ezintasunik gabeko lesio iraunkorrari dagokion prestazioa jasotzeko eskubidea aitortuz; Mutualiak egindako proposamena ez da loteslea.

Gizarte Segurantzaren Institutu Nazionalak jakinaraziko die interesa duten alderdiei zein den ebazpena; idatziz jakinaraziko zaio langileari zein den edukia eta onartutako prestazioaren ordainketa modua.

Langileak ez badatoz bat ebazpen administratiboaren edukiarekin, aurretiazko erreklamazioa jarri ahal izango dute ebazpena jakinarazi eta 30 eguneko epean, eta, ondoren, auzi-eskea gizarte epaitegiaren aurrean.

-Ezintasunak berrikustea

Ezintasun egoerak edozein unetan berrikus litezke, baldin eta ezintasuna duen pertsonak ez badu erretirorako adina bete eta honako arrazoi hauengatik bada: txarrera egin duelako, hobera egin duelako edo diagnostikoan akatsa egon delako.

Ezintasun iraunkorreko prestazioak jasotzeko eskubidea onartzen duten Gizarte Segurantzaren Institutu Nazionalaren ebazpen guztietan, bai hasierakoetan bai berrikusketei dagozkienetan, edozein dela ere horien gradua, edo aurretik onartutako maila berresten dutenetan, derrigorrez agertu behar du zer epeetik aurrera eska daitekeen larritu edo hobetu izanagatiko berrikusketa. Edonola ere, ezintasunagatiko pentsiodunak lanean badaude, bai beren kontura bai besteren kontura, Gizarte Segurantzako Institutu Nazionalak berrikusketa eragin dezake, ofizioz edo interesdunak eskatuta, kontuan hartu gabe ebazpenean zehaztutako epea igaro den edo ez.

Berrikusketaren oinarria bada diagnostikoan akatsa sortu izana, edozein unetan egin daiteke, aipatutako adin mugarekin, betiere.